



IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Gurasoei gutunak

Zenbatetan gelditzen da bat gurasoei esan nahi diena esan gabe? Zenbat aukera galdu, zenbat askatu gabeko sentimendu? Lotsa izan daiteke isilik geratzeko arrazoia, edo une jakin bateko haserrea, tristura... Eta hori guztia idatziz adierazteko aukera egongo balitz? Erraza goa litzateke, ziur aski.

Norberak gurasoei esan nahi dizkien hitzak gutun laburren bidez adierazteko aukera emango dute Irrien Lagunen Klubak eta Ttiklik elkarguneak Ttiklik Idazlan Laburren Lehiaketaren laugarren aldian. Orain arte elkarguneak aurrera eraman duen egitasmoa elkarlanean egingo dute aurten. Gurasoei omenaldi bat egiteko modua eskaintzen du lehiaketak, eta, era berean, idazteko zaletasuna indartzeko baliagarria da.



MADDI SOROA / ARGAZKI PRESS

Ez dago sentimenduak adierazteko adinik: guztiek esan gura diete zerbait gurasoei. Horregatik, ez dago lehiaketan parte hartzeko adin mugarik, mailaketa bat besterik ez: 6-11 urtekoen saila, 12-18 bitartekoena eta 18 urtetik gorakoena. Haur gazteagoen kasuan -0-7 urte bitartekoak-, gutuna idatzi beharrean, marrazkien bitar-

tez adieraz diezazkiekete sentimenduak gurasoei, *Gurasoei gutuna* atalean.

Gutunak edo marrazkiak bidaltzeko epea irailaren 15etik azaroaren 10era izango da. Azaroaren 26an egingo dute sari banaketa. Ekitaldi berezia izango da, haurrentzako lantegiak, zozketak eta gonbidatuak izango baitira.

BOSTAFOBO

